

GENEROAREN AZTERKETA IBAN ZALDUAREN IPUINGINTZAN

INON EZ, INOIZ EZ OINARRI HARTUTA

IKASLEA: AIORA SAMPEDRO ALEGRIA

TUTOREA: MIKEL AYERBE

GRADUA: EUSKAL IKASKETAK, EUSKAL FILOLOGIA ETA HIZKUNTZALARITZA

IKASTURTEA: 2014-2015

Laburpena

Susmoa genuen Iban Zalduaren ipuingintzan genero rol normatiboen iraultza motibo errepikakorra zela eta bere ipuin batzuen azterketarekin hori frogatzen saiatu gara. Horretarako, bere azken liburua, *Inon ez, inoiz ez* aukeratu dugu, uste baitugu, argitaratutako bere azken lana izatearekin batera, bere ibilbideko libururik osoena dela, bere ipuingintza osoa biltzen dituen.

Azterketa honen bidez, gure lanaren amaieran, irakurleak ondoko galdera hauen erantzuna jasotzea izan da helburua: 1) Zalduaren ipuingintzan heteronormatibitatearekin hausten da? 2) Era nabarmenean hausten da gaur egungo egoera normatiboarekin? 3) Zein estrategia narratiboren bidez garatzen da haustura hori? 4) Emakumeek eta gizonezkoek jasotzen duten hausturaren tratamendua berdina izan ohi da?

Horretarako, lehenik bere ipuingintzari errepassoa eginez, *Inon ez, inoiz ez* aukeratzearen arrazoiak azaldu dira eta zergatik iruditzen zaigun bere ibilbideko lanik osoena. Ondoren, bildumako ipuin batzuk aukeratu eta aztertu dira; batetik, kontakizun horiek aukeratzea justifikatu da; eta bestetik, emakume eta gizonezkoen irudiaren eraikuntza aztertu da ipuin horietan, baita generoaren heteronormatibitatearen iraultzaren proposamena zein modutan garatzen den ere. Alde batetik, emakumezko pertsonaien eraikuntzan erabiltzen dituen motiboak erakutsi eta aztertu dira eta bestetik, gizonezko protagonistengan erakusten direnak; horrela, euren artean konparatzeko. Azkenik, azterketa eta konparaketa horretatik eratorritako ondorioak plazaratu dira.

Azterketa honetatik, zenbait emaitza argi jaso ahal izan dugu: batetik, ikusi dugu beste gai askorekin bezala, ipuinetan kontaktzen den istorioaren atze-ohial gisa egiten dela heteronormatibitatearen kritika, beste zenbait gertaera lantzen baitira ipuin bakoitzean. Bestalde, istorioetako protagonistek erakusten duten moduan, genero rol tradizionalei kritika egiteko, bikote harremanak hartzen dituela Zalduak oinarri, adin ertaineko familia gurasoak; eta beren harremanetako arazo eta arrakalak erakusten dituela.

Beraz, ikusitakoaren argitan, ondorioztatu dugu, Zalduak generoa itzultzeko irakurlearen inguruko gaur egungo gertuko eta eguneroko bizitza azaltzen digula gordin-gordinean. Ez zaiola gizarteari aurreratu nahi, ez digula bere mundu ikuskera

idilikoa ezagutarazi nahi; baizik eta, gaur egungo bai emakumezko eta bai gizonezkoen patetikotasuna agertu.

Azkenik, ez genuke aipatu gabe utzi nahi, lanketan zehar erabilitako materiala aztertzerakoan, konturatu garela, euskal literaturan emakumezkoek sortutako emakumezko protagonisten inguruko analisirik egin bada ere, gizonezkoek sortutako gizonezko eta emakumezko pertsonaien inguruko azterketak urriagoak izan direla. Honako hau, azterketa horretara gerturapen bat izatea espero da, baina, etorkizuneko lanetan garatzeko gai egokia delakoan gaude.

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 0. Sarrera | 3 |
| 1. Iban Zalduaren ipuingintza eta <i>Inon ez, inoiz ez</i> | 4 |
| 1.1. Biografia..... | 4 |
| 1.2. Ipuingintza | 4 |
| 1.3. <i>Inon ez, inoiz ez</i> | 6 |
| 2. Metodologia..... | 8 |
| 2.1. Corpusaren justifikazioa | 8 |
| 2.2. Azterketarako corpora..... | 9 |
| 3. Ipuinen azterketa..... | 11 |
| 3.1. Sexuak bereizteko estrategiak | 11 |
| 3.2. Pertsonaiak eta narratzailea..... | 11 |
| 3.3. Espazioa eta denbora..... | 13 |
| 3.4. Emakumezko protagonisten analisisa..... | 14 |
| 3.5. Gizonezko protagonisten analisisa | 20 |
| 4. Ondorioak | 22 |
| 5. Bibliografia | 23 |

0. Sarrera

Literatura eta generoaren arteko harremanaren azterketa bolo-bolo dabilen gaia izanik (Toledo 2000, Retolaza 2007, Lasarte 2012 kasu), lan honetan zehar, defendatzen saiatuko gara Iban Zalduaren ipuingintzan genero rol normatiboen iraultza motibo errepikakorra dela. Horretarako, bere azken liburua, *Inon ez, inoiz ez* aukeratu dugu, uste baitugu, argitaratutako bere azken lana izatearekin batera, bere ibilbideko libururik osoena dela, bere ipuingintza osoko ezaugarri bereizgarrienak biltzen dituena. Bertan, zenbait ipuin aukeratu ditugu, eta erakutsiko dugu, ipuin horiek kontatzen duten istorioaren atzean, badela heteronormatibitateari egiten zaion kritika ere.

Horretarako, lehenik bere ipuingintzari errepassoa eginez, *Inon ez, inoiz ez* hautatzearen arrazoiak azalduko dira. Ondoren, bildumako ipuin batzuk aukeratu eta aztertuko dira; batetik, kontakizun horiek aukeratzea justifikatuko da; eta bestetik, emakume eta gizonezkoen irudiaren eraikuntza ikertuko da ipuin horietan, baita generoaren heteronormatibitatearen iraultzaren proposamena zein modutan garatzen den ere. Azkenik, azterketa horretatik eratorritako ondorioak plazaratuko dira.

Lanerako ahalik eta bibliografia zabalena erabili da: batetik, bai euskal literaturaren, bai Zalduaren literaturaren ingurukoa; bestetik, literaturak generoaren eraikuntzaren inguruan duen ikuspegiaren ingurukoa, eta azkenik, zehatzago, euskal literaturan generoak hartu duen tratamenduaren ingurukoa ere. Baliabide bibliografikoak aztertzerakoan, konturatu gara euskal literaturan gehienbat emakumezkoek sortutako emakumezko protagonistak aztertu direla, eta beraz, guk gizonezko batek idatzitako emakumezko eta gizonezko protagonistak aztertuko ditugu, beti ere, emakumezkoen irudiari lehentasuna emanez eta aldi berean, emakumezkoek sortutako emakumezko protagonistekin konparaketa egiteko.

Azkenik, gure lanaren amaieran, irakurleak ondoko galdera hauen erantzuna jasotzea genuke helburua: 1) Zalduaren ipuingintzan heteronormatibitatearekin hausten da? 2) Era nabarmenean hausten da gaur egungo egoera normatiboarekin? 3) Zein estrategia narratiboren bidez garatzen da haustura hori? 4) Emakumeek eta gizonezkoek jasotzen duten hausturaren tratamendua berdina izan ohi da?

1. Iban Zalduren ipuingintza eta *Inon ez, inoiz ez*

1.1. Biografia

Iban Zaldua (Donostia, 1966) Historian lizentziatua da, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ekonomi historia irakasten badu ere, ibilbide literario zabala du. Zenbait ipuin-bilduma¹ idatzi ditu orain arte: *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* (2000), *Traizioak* (2001), *Itzalak* (2004), *Etorkizuna* (Euskadi Saria, 2005); azkena, lan honetan aztergai den obra *Inon ez, inoiz ez* (2014). Bestalde, ipuin-liburuak ere idatzi ditu *Ipuin euskaldunak* (1999), *Biodiskografiak* (2011) eta *Idazten ari dela idazten duen idazlea* (2012). Gainera, zenbait antologiagilek aintzat hartu dituzte bere lanak beren bildumak osatzerakoan Camel-en *Best European Fiction 2015* (2014), Olaziregiren *Mende berrirako ipuinak-Antologia* (2005) edo Ayerberen *Our Wars. Short Fiction on Basque Conflicts* (2012).

Nahiz eta bere jarduna ipuingintzan oinarritzen den, zenbait saiakera lan argitaratu ditu, eta hauetan ere, gai nagusia literatura da: *Obabatiko tranbia* (2002) eta *Animalia disekatuak* (2005). *Nouvelle* bat ere idatzi du, *Euskaldun guztion aberria* (2008). Gainera, haur eta gazte literatura arloan Euskadi Saria jasotako *Azken garaipena* komikiaren gidoiaren egilea da (Euskadi Saria haur eta gazte literatura alorrean, 2011).

Azkenik, *Veinte cuentos cortitos* (1989), *La isla de los antropólogos y otros relatos* (2000), *Si Sabino viviría* (2005), *Ese idioma raro y poderoso* (Euskadi Saria gaztelaniazko saiakeran, 2012) lanek biltzen dute Zalduek gaztelaniaz eginiko ekarria.

1.2. Ipuingintza

Idazlearen ekoizpen literarioari begiratu, argi ikus daiteke ipuingintzaren aldeko hautua egiten duela gure idazleak; horren erakusgarri, idazleak berak behin baino gehiagotan aztertu izana ipuinaren mikrokosmosa; adibidez, berak aukeraturiko bere ipuin hoberenen antologian, *Ipuinak-Antologia bat*, “Ipuingintzaren dodekalogoia” delakoa epilogo gisa gaineratzen da, izenak berak dioen bezala, ipuingintzan jarraitu beharreko arauak aurkeztuz; *Inon ez, inoiz ez* lanean ere “Nobela nazioak, ipuin herrialdeak” ipuina agertzen zaigu, ipuingintzaren aukeraketaren justifikazio modukoa.

¹ Zalduek behin baino gehiagotan erabilitako banaketa gure egingo dugu lan honetan: ipuin-bilduma gai desberdinen inguruko ipuinen multzo bezala harturik, eta ipuin-liburua, aldiz, gai baten inguruan oinarritutako ipuinen pilaketa gisa.

Publikatu dituen saiakera lanetan ere ipuingintzak pisu nabarmena du (ikus *Obabatiko tranbia*).

Aipu honetan ageri zaigu Ur Apalategik Zalduaren *Ipuinak-Antologia* bat laneko sarreran (2010: 14) hain ongi ikusten jakin izan zuen gakoa:

Iban Zalduak, bere ekoizpen literarioa ipuingintzara mugatuz, esanahi sinbolikoa duen poetika inedito bat aldarrikatu du. Eleberria ez dagokigu euskaldunoi. Ipuina da gure izaera sakona, baita gure izaera historiko zalantzatia ere, leialki isla dezakeen genero bakarra. Ipuinaren periferikotasuna Euskal Herriaren periferikotasunaren metafora bihurtzen da bere lumapean.

Zalduak ere, *Inon ez, inoiz ez* liburuan hautu honen aldarria egiten digu ipuin baten bidez. “Nobela nazioak, ipuin herrialdeak” izenez deituriko errelatoan, berak dioen moduan, saiatu izan da azaltzen:

Zer dela eta iruditu zaidan ia beti ipuin liburuek hobetu islatu dutela gure historia hurbila –eta ez horren hurbila- nobelek baino. Eta zeintzuk diren euskal ipuingintzaren sendotasun oro har handixeagoaren kausak, inguruko herrialde eta literaturetan izan ohi duenarekin konparatuta (287)².

Ipuinaren amaieran ipuingintza ibilbidearen ardatz aukeratzearen justifikazioa zehazten du:

Nazio batzuk Ipuin Herrialdeak dira eta herrialde batzuk, ordea, Nobela Nazio. Espainia, esaterako. Bere historiaren hasieratik Gaztelaniazko Nobela Handien pertsekuzio eta ehiza konpultsibora emana (...). Hortaz, Espainiako historiak –tradizio autokratiko luze eta eutsi batekin non etsaia barrutik baitator betiere- nobelagileak produzitzen ditu. Ondorioz, ez da harrizkoa Euskal Herriko historia espasmodiko, eskizofreniko eta beti etenak – Regenta baten edo Emma Bovary baten farorik gabe- ipuingile jenialak produzitzea (...). Euskal Herriko historiaren eztanda konstante eta aldi berean etenaren gisa (...). Lasaitasuna behar da nobela bat idazteko, ipuin bat lurrikara baten erditik idatz daiteke (290-291).

Lanean aztergai dugun *Inon ez, inoiz ez* aipatu berri den poetika honen erakusgarri litzateke. 2014ko apirilean Elkar argitaletxeak publikatu zuen lan hau hiru zati nagusitan banatzen da: lehen zatia, *Inon ez*, eta hirugarren zatia, *Inoiz ez*, deiturikoak fantastikoenak lirateke; Erdiko zatia, *Hemen, orain (2006-2014)*; izenak adierazten duen bezala, errealistena litzateke. Idazlearen esanari jarraiki hasierako atalean bildumen artean kokatu badugu ere, Erdiko atal honetako gai nagusia gatazka

²Lanean zehar aztertzen ari den liburuari dagozkien orrialdeak, bibliografian atxiki da liburuaren erreferentzia.

izateak, lana ipuin-liburuaren barnean kokatzea ere eragin dezake; izan ere, nahiz eta beste gai anitz ere jorratu (lan honetan aztergai den generoaren ikuspegia adibidez), behin eta berriro euskal gatazkaren testuinguruan ipiniko gaitu autoreak eta atze-oihal baten moduan agertuko zaigu ipuin askotan. Gainera, egia da, ipuin batetik besterako pertsonaien izenak zenbaitetan errepikatzen direla (Mikel, Aitor, Elena, Iñaki...); horrek adierazten digu, balitekeela pertsonaiek ipuin batetik bestera jauzi egitea, nahiz eta pertsonaia autonomotzat ere har daitezkeen eta ipuinek ulergarritasunik ez galdu.

1.3. *Inon ez, inoiz ez*

Nahiz eta idazleak dioen ipuin-bilduma bere aurreko lanen aldean gai anitzen inguruan eraiki dela, liburuaren izenak berak ematen digu aditzera zein izango diren obraren ardatzetako batzuk: *Inon ez, inoiz ez*. Zalduak azaltzen duen bezala, fikzioaren espazio eta denborari egiten dio erreferentzia izenburuak; hots, bere hausnarketa metafisikoei jarraiki, inon eta inoiz gertatzen ez dena baina benetan gertatzen dena delako fikzioa.

Azken liburu hau bere ibilbideko osoena dela esan badugu; hein handi batean, idazlearen obsesio literarioen berrespen modura har dezakegulako da; izan ere, generoaren eraikuntzaren gaiarekin batera, beste hainbat ardatz errepikatuko zaizkigu. Zehazkiago, 2005ean argitaratutako bere *Etorkizuna* ipuin-liburuaren jarraipen gisa ere uler daiteke; izan ere, bertan agertutako ipuinetan agertzen zaizkigun motiboak biltzen dira bertan.

Iban Zaldua ipuingile sutua dela baieztatu dugunean, bere ipuingintzan dagoenerako *loci communi* batzuk eratu dituela esan dezakegu. Honen literatura ibilbide osoari begiratuz, ipuingintza ibilbidean zehar errepikatzen diren motibo batzuk nabarmendu ahalko dira.

Motibo errepikakor edo *loci communi* horietako bat dugu batetik, denbora. *Etorkizuna* lan horretan, nagusiki, izenburuak berak adierazten duen moduan, denbora izango da ardatz nagusi eta lan honetan aztergai den liburuan ere obsesio gisa sendotuko da alderdi hori. Denborak lineala izateari uzten dio, atzera eta aurrera egiten dute

pertsonaiek denboran³. Esan gabe doa, denborarekiko jolas horrek, Borgesen poetika gogorarazten duela.

Denboraz hitz egitean espazioak materialtasuna galtzen duela esan badugu, espazio determinatuei dagokienez, gehienak espazio urbanoak dira, eta bertan, leku berezia hartzen dute idazlearen jaioterri den Donostia hiriak edota bizileku duen Gasteizek: “Lerro hori bat, lerro gorri bat” izeneko ipuinean adibidez, etengabeak dira Donostiako danborrada egunari egiten zaizkion erreferentziak; edota “Bila” eta “Zer deritzozu ETAk jarduera armatua utzi izanari? Zein neurritan iruditzen zaizu gaurkoa egun historikoa?” ipuinetan. Bestalde, “Gaztainak” edo “Zapatería Beltrán, Café Moderno” izeneko ipuinetan Gasteizko kaleak eta erreferentziak (Corte Inglés, Zapatería Beltrán...) ageri zaizkigu.

Fikzioa ere Zalduaren poetikaren ardatzetako bat izango da, azken obra honetan batez ere; fikzioaren eta errealtatearen arteko muga lausoan sinesten duen idazlearen lana da hau, fikzioaren bidez errealtatea aldatzeko gaitasunean sinesten duen idazlearen lana. Berak *Inon ez, inoiz ez* lanerako aukeratutako Chesterton-en aipu batek adierazten du ederki hau: “Historia deritzon nobela horrekin loturiko alderdi premiazoenetako eta ahaztuenetako bat, amaituta ez dagoela da” (107). Horri esker, aske dabil idazlea fikzioak eskaintzen dizkion baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen.

Fikzioa egiten badu ere, egunerokotasuna ipuin guztietan agertuko zaigun elementua dugu; oreka lortzen da fikzioaren eta egunerokotasuneko gertakari arrunten artean, gai ohikoak dira bikote harremanak, euskal testuinguru soziopolitikoarekiko bizipenak...

Literatura moderno ostekoaren ezaugarri den jolasa (Rabelli, 2011:104) ere behin eta berriz errepikatuko da bilduman zehar; adibidez, parodia erabiliko du zenbait ipuinetan; hala nola, “Twitter bidezko heriotza” edo “Autobiografia” deiturikoetan.

Absurdia liburuan zehar errepikatzen den beste obsesioetako bat litzateke. Zurrumbilo modura agertuko zaigu, errepikatzearen errepikatzez edo itxarotearen itxarotez zentzugabea bilakatuko baita errealtatea. Absurduaren erabilera honek Kafkaren itzala salatzen du; adibidez, “Zeta-harrak” deituriko kontaketa.

³ Aztergai den liburuaren aurkezpenean Ibon Egañak eginiko baieztapena.

Azkenik, obsesiboki errepikatuko diren gai batzuk ere nabarmendu daitezke: heriotza, “Inframundu”, “Madrid-Roma, 2646 hegaldia”, “A89, la Transeuropéenne”... idazleak berak aitortu duenez, aurreko liburuetan baino presentzia handiagoa du bere azken lanean honek. Adibidez zenbaitek, Zalduaren lanen gai nagusitzat jo dute *Gauza*⁴ delakoarena, obsesio errepikakorrena den heinean; Ur Apalategik (2013: 71) hau diosku:

(...) euskal gaia, la Cosa deitu izan duena (euskal gatazka), bihurtu da bere obraren gairik behinena (...). Beste inork ez bezalako asmamenez jorratu du gaia, euskal subjektuaren bilakaeraren historia eta abatar ezberdinak bere literatur diskurtsoan integratuz.

Adibidez, gure lanean, bildumaren bigarren zatiaren ardatza izango da; *Ipuinak-Antologia bat* bilduman ere errepikakorra izango da gai hau eta *Etorkizuna* liburuko azpitituluak (*Hamabost ipuin ia politiko eta bat opari*) ere gauza bera iradokitzen du. Noski, genero-rolen eraikuntzaren gaia ere etengabea izango da; baina hau, aurrerago aztertuko da xeheago.

2. Metodologia

2.1. Corpusaren justifikazioa

Gure ustez, idazle donostiarraren ipuingintzan *Gauzaren* inguruko gogoeta gai nagusia dela oso ideia zabaldua bada ere, genero-rol normatiboen iraultza ere errepikatzen den motiboa izango da. Generoa Alvarez Uriak *Genero ariketak* laneko glosarioan definitzen duen moduan ulertu beharko da, hau da: “gizon eta emakumeei egotzitako eta sozializazioaren bidez barneratutako rol, identitate eta balioen definizio historiko-soziala” (Castillo & Retolaza, 2013: 288-289). Idazlearen lanetako ardatz nagusien azterketan aipatu den bezala, iruditzen zaigu idazleak kontakizun askotan egiten duela rol tradizionalen aurkako kritika; ia-ia ipuin guztietan agertzeraino, batzuetan kontakizuneko gai nagusi bezala, besteetan pertsonaiak laguntzen dituen atze-oihal modura. Horretarako, darabiltzan gai nagusiak haurren zaintza edota desleialtasunak izanik gehienbat, baina baita emakumeen lekua gizartean, homosexualitatea, banandu ondorengo bikoteen arteko harremana eta generoaren eraikuntzarekin loturiko bestelako hainbat xehetasun ere.

⁴ *Gauza* edo *La Cosa* eufemismoa erabili izan du Zalduak euskal gatazkaz hitz egiterakoan.

Hori egiaztatzeko zenbait kontakizun aztertuko dira xeheki, emakumeen eta gizonen iruditegia eraikitzeko estrategiak ikusiko dira eta idazlearen beste lan batzuk tartekatuz, egileak bere kontagintzan erabilitako generoen ikuspegia aurkeztuko da, genero normatiboekin erkatuz egilearen iraultza intentzioa justifikatzeko. Lan hauek aukeratzearen arrazoia, gehienbat, generoaren iraultzaren motiboa argiki erakusten dutela izan da; aztertu nahi genituen arloak gardenki azaltzen direlako. Baina, beste alde batetik, ipuin hauek Zalduaren ipuingintzaren erakusgarri argiak izan daitezkeelako; izan ere, hauetan oso nabarmen agertzen dira aurreko atalean nabarmendu diren Zalduaren literatura ibilbidearen motibo nagusiak; batzuk aipatzearen: *Gauza* atze-oihal gisa, edo kontakizunak eguneroko bizitzan, gertutasunean, kokatzea; parodiarako eta jolaserako joera; koordenada espazio-tenporalen lausotzea eta denboraren garrantzia...

2.2. Azterketarako corpusa

Esan bezala, lan honen muina Zalduaren ipuinetako pertsonaien genero-rolen eraikuntzaren azterketa izango da. Horretarako, *Inon ez, inoiz ez* ipuin-bildumako errelato batzuk aztertuko dira eta beharrezko suertatzen denean, idazlearen beste lan batzuekin erkatuko dira. Honako ipuin hauek aztertuko dira xeheki:

“Williams”: seme-alaben zaintzaren eta bikote harremanen arteko zerikusiarren inguruko gogoeta egiten du idazleak. Haizea izeneko haur txiki baten guraso diren bikotearengan jartzen da arreta istorioan, Jonan eta Malen. Ezkondurik daude eta senarrak beste emakume batekin duen aferak erakusten zaigu. Eguneroko bizitzan hau guztia elkartzerakoan sortzen diren arazoei ematen zaien erantzunaren inguruko kontakizuna da.

“Gerra Zibilak”: nazio eraikuntzan borroka apalagoek duten lekuaren inguruko hausnarketan oinarritzen da ipuina. Euskal Herriko baso batean borrokan dabiltzan Euzko Gudarozteko borrokari talde baten istorioa kontatzen zaigu, eta haien arteko emakume bakarrak, bere egunerokoan lehen pertsonan gertakarien berri ematen digu.

“Zeta-harrak”: kontakizun honetan ere seme-alaben zaintza eta bikote harremanak izango dira gai nagusia. Hemen ere haurrak dituzten Iñaki eta emazte ohiarengan fokalizatzen da istorioa. Kasu honetan, bikotea banandua dago, eta biek dute

harreman berri bat: ama beste emakume batekin bizi da, eta aita ere beste emakume batekin elkartu da.

“Bila”: errelato honen muina metaliteraturan datza; metaliteratura López Gasenik erabilitako zentzuan; hau da, literatura bera azaldu, deskribatu edo hizpide hartzeko erabiltzen den literatura. Bestela adierazita, literatura era batera edo bestera gaitzat darabilen literatura da metaliteratura (López Gaseni, 2008: 13). Harreman lesbiko baten berri emanez, emakumeek eta homosexualek literaturan duten lekuaren inguruko gogoeta erakusten digu. Bolada ekonomiko txar bat pasatzen ari diren bi emakumeren arteko amodio-afetaren berri ematen digu idazleak. Protagonistek ikusten dituzten pelikula edo telebista serieen inguruko iruzkinak literaturaz duen ikuspegia ezagutarazteko baliatuz.

Bestalde, analizatzen denaren ulermena errazteko beharrezkoa denean, beste lan hauek ere baliatuko dira:

“Txakurrak” bilduman agertzen den beste ipuin bat. Honetan ere, bikote-harremanak izango dira muina, eta amatasunaren/aitatasunaren gaia ere tartekatuko zaigu. Banandurik dagoen bikote batean, harreman berri bat hasterakoan jelsiak hartzen duen lekua erakutsiko zaigu. Idazketa teknika ezin hobearen adibidea dugu: *in extrema res* hasten den kontakizuna eta elkarrizketek soilik osatzen dutena, generoen arteko muga lausoa iragartzen duena.

Azken garaipena komikia. Historiaren inguruko gogoeta egiten du autoreak, bere *Etorkizuna* laneko “Aldatzen den gauza bakarra” ipuineko Felix de Azúaren aipuan dioen bezala:

Urteen poderioz sakonen aldatzen dena ez da oraina ezta etorkizuna ere, iragana baizik. Oraina hortxe dago sor eta gor, egoskorki [...]. Etorkizunari dagokionez, haizea jazartzea da, kimera bat [...]. Aldatzen den gauza bakarra iragana da (Zaldua, 2014:5).

Hala ere, nahiz eta Historiaren berrinterpretazioan egon ipuinaren muina, rol normatiboen aldaketa proposatzen duten zenbait lorratz aurki ditzakegu atze-oihal gisara: umeen zaintza, emakumearen lekua lan mundu patriarkalean... Umearen zaintzarik ez duen Sigrid izeneko ama alkoholiko-ohia da ipuineko protagonista, polizia burua izanik, emakume baten ezohiko irudia aurkezten digu Zalduak lan honetan.

Euskaldun guztion aberria nobela laburra. Bertan, euskaldun sasi-intelektual baten atzerrirako bidaia kontatzen zaigu, euskal gizartearen arazoei konponbiderik ikusten ez dien intelektualaren ihesa. Nobelak aurrera egin ahala, konturatzen joango da irakurlea, gizarteko arazoei baino bere barneko arazoei ihes egiten diela protagonistak.

3. Ipuinen azterketa

3.1. Sexuak bereizteko estrategiak

Esandakoaren argitara, ikus dezakegu generoak bereizteko ahalegin berezia egiten duela idazleak lanetan, topikoak erabiltzen ditu sexuak bereizteko eta gero, topiko horiek deseraikiz heteropatriarkatua iraultzeko ahalegina egiten du. Generoen analisi sakonarekin sartu aurretik, ikus ditzagun bada, sexuak bereizteko erabiltzen dituen aukerak.

Irakurlearen aurreiritziekin jolasten du: baliabide hau nabaria da emakumezkoak protagonista diren errelatoetan. “Gerra Zibilak”-en hasieratik dakigu Euskal Herriko txokoren batean borrokan dabilzan gudari talde baten berri ematen zaigula, baina kontaktarekin aurrera egin ahala markatzen zaigu narratzailearen sexua, femeninoa hain zuzen (20 orrialdeko kontakizunean 17.era arte itxaroten du datu hau emateko). “Bila”-n ere generoaren inguruko planteamendua egin nahi duenean hasten da bi partaideen sexuen markapena, idazleak berak diosku kontaktetan “Fijatu al haiz ipuineko zein puntutan hasten diren elkarrizketak eta, ondorioz, genero-markak?” (274). Sexuak markatzeko enplegatutako baliabide nagusia hitanoaren erabileran datza, elkarrizketen bidez markatzen du gehienetan autoreak partaideen sexua aztertuko diren ipuin guztietan. Izenburuek ere leku garrantzitsua hartzen dute zeregin honetan, aurrerago zehaztuko den bezala, “Williams”-en izenburuak adierazten digu zein sexurengan jarri nahi den arreta.

3.2. Pertsonaiak eta narratzailea

Azterketarekin hasteko, protagonistei helduko diegu. Aipagarria da narrazio gehienetan protagonistak tarteko adinekoak izatea; horrek, Zalduaren fokalizazioaren berri ematen digu; adibidez, “Gerra Zibilak”-eko protagonistak 17 urte dituela zehazten zaigu narrazioan bertan; “Bila”-n ere aditzera ematen zaigu gazteak izan behar dutela protagonistek: “Euskal Filologia egina zuela, baina, ikastola batzuetan egindako ordezkapen laburrak kenduta, ez zuela apenas irakasle gisa lanik egin” (261). Sozialki,

maila ekonomiko ertainekoak direla ere aipatzekoa da. “Bila”-n langabezia dauden protagonistak ditugu eta “Williams”-en ere familia mantentzeko eguneroko arazoak agertzen dira kontakizunetan tartekatuta:

Estu samar gabiltzan azkenaldi honetan. Jonani hilabete barru amaitzen zaion ordezkapena, eta ez din uste irailera arte ezer izango duenik [...], eta ni, lan puta horrekin... Juxtu-juxtu ateratzen dinagu hipotekarentzako. Eta umea... umea ez dun gastu makala, badakizue (66).

Gehienetan, bikote-harreman bat duten eta haurren baten gurasoak diren pertsonaiek betetzen dute ipuinetako protagonisten profila; aipatutako “Williams”-ekoak edo “Zeta-harrak” narraziokoak, adibidez: “Atezain automatikoak hirutan jo du [...] seguru edan egin duela pentsatu du Iñakik [...] umeak arrapaladan sartu dira etxean [...]. Atzean, poltsak eramanez, Elena agertu da.” (219). Hala ere, zehaztu behar da; aurrerago azaltzen saiatuko garen bezala, bikote-harreman heterosexualak aurkitzen ditugula nagusiki, eta homosexualak bigarrenan geratzen direla.

Istorioetan ageri zaizkigun emakumezkoen eta gizonezkoen profilari begiratu gero, zenbait ardatzen inguruan egituratzen direla ikusiko dugu, batez ere: amatasuna eta aitatasuna, etxeko bizitza eta lan mundua ezkontzeko arazoak eta bikotekidearekiko harremana.

Azkenik, narratzaile molde anitz aurki ditzakegula esan dezakegu. Ipuin askotan estradiegetikoa izan ohi da, istoriotik kanpo kokatzen da eta horrek, gertakarietara distantzia hartzea ahalbidetzen dio kontalariari eta aldi berean, gaur egungo gizartearen panoramika bat aurkeztekoa. Gure azterketarako erabilitako ipuin gehienetan, kontalaria estradiegetikoa izatearekin batera orojakilea da; adibidez “Zeta-harrak”-en “Atezain automatikoak hirutan jo du (...). Seguru edan egin duela, pentsatu du Iñakik” (219) “Williams” kontaketa ere badugu adibiderik, “Ergelki, desodorante marka hura erabiltzen hasi zen garaiaz oroitu da”. Istorio hauetan, aipagarria da, nahiz eta kontalaria estradiegetikoa izan, gizonarengan fokalizaturik agertzen dela; izan ere, bietan ematen zaigu gizonezkoaren sententzioen berri, baina ez halaber, emakumezkoena. Adibidez, “Williams” istorioan lehenik Jonanen berri ematen zaigu, lehenengo paragrafoan agertzen da jadanik eta hurrengo orrialdera arte itxaron behar da Malenek, emazteak, hitza har dezan. Berdina gertatzen zaigu “Zeta-harrak”-en, protagonista senargai ohia litzateke eta bere inguruan harilkatzen dira gainontzeko pertsonaiak: alabak, emazte ohia, bikotekide berria eta gainerako 2.mailako pertsonaiak.

Beraz, badirudi Zalduak ahalegin berezia egiten duela bikote-harremanak eta umeen zaintza bezalako gaien inguruan gizonezkoen lekua aldarrikatzen; hau da, gizonezkoen historikoki egotzitako rolak iraultzen.

Aitzitik, emakumeengan fokalizatu denetan istorioa, berriz, narratzaile intradiegetikoaren bidez izan da; lehen pertsonaia kontatutako istorioen bidez; hauetan gainera, kontuan izan behar da idazketak hartzen duen garrantzia, “Gerra Zibilak”-en eguneroko baten idazten duen pertsonaia dugu. Gema Lasartek bere tesian azaltzen duena argigarri suerta daiteke emakumezko pertsonaien eraikuntzan idazkeraren erabilera ulertzeko (Lasarte, 2012: 65-66):

[Emakume idazleek sortutako emakume protagonistek] ia guztiek modus autobiografikoa dute kontamolde gisara [...]. Balirudike mendeetako emakume idazleen isiltasunak derrigortu dituela emakume idazleak identitate eraikuntza hartzera idaztanka gisa.

Gainera, “Bila” kontakizunean ere, istorio amaieran metafikziora joaz, hasieran narratzaile batek kontatutako istorioa zena, pertsonaietako batek idatzitako liburu bateko istorio bilakatzen da aldi berean. Lan honetan metafikzioa Gray-k bezala ulertu beharko da, “fikzioaren bidez fikzioaz hitz egitea” (itzulpena neurea da, Gray, 1992: 173).

3.3. Espazioa eta denbora

Esan bezala, espazioak garrantzitsuak dira testu hauen azterketan. Gehienbat espazio itxiak erakusten dizkigu. Etxeek hauen artean leku berezia hartzen dute: bikotekideen bizilekua itogarri bilakatuko da ipuin gehienetan; adibidez, “Williams”-en “Berak egun guztia etxetik kanpo pasatzen din, eta nik bazaukanat kalera pixka bat irteteko eskubidea ezta?” (58); bestalde, etxearen deskribapen desatsegina egiten digu narratzaileak; egoera itogarria aurkezten zaigu bai gizonezkoentzat, bai emakumezkoentzat, “Malen lanean ari da [...] haren mahaia irudikatu du, katalogo irekiek, San Miguel lata hutsek eta zigarrokin estalia” (55).

Azpimarratzekoa da, etxetik kanpoko zereginetan gizonezkoak agertzen zaizkigula ia beti: “Williams” ipuinean Malenek etxean lan egiten du, eta Jonanek etxetik kanpo, “Zeta-harrak” kontakizunean ere, aitak umeekin parkean egiten duen pasartea ageri zaigu soilik etxetik kanpora eta “Txakurrak”-en ere, senarra da etxetik kanpora txakurrak paseatzera ateratzen dena, emaztea haur jaioberria zaintzen geratzen

den bitartean; honek, zer esanik ez, ahalbidetzen dio senarrari gerora bikotekide berria bihurtuko den emakumea ezagutzea. Azkenik, etxetik kanpo agertzen zaizkigun emakumeen kokalekuak nahiko marjinalak izan ohi dira, bizitza publikotik ezkutuan: baserria da emazte-ohiaren eta bere bikotekide berriaren bizilekua “Zeta-harrak”-en, basoan garatzen da “Gerra Zibilak”-eko kontakizuna, kontainerretan ezagutzen dute elkar “Bila”-ko emakumezko bikoteak...

Bestetik, denbora molde anitz erabiltzen ditu Zalduak, istorio batetik bestera aldatzen direnak: orainaldian kontatutakoak daude “Williams” edo “Zeta-harrak”, iraganean “Bila”... Gehienetan, jauziak (bai analepsia, bai prolepsia) izaten dira kontakizunetan, garrantzizkoena kontatzen zaigu; horren adibide garbia da “Gerra Zibilak”, zeinetan eguneroko baten bitartez kontatzen zaigun gertaturikoa:

Kontakizunaren hasierako hitzetan zehazten den bezala, besterik lortu ezean, azkeneko koadernoan da narratzaileak eskura duena eta beraz, egunerokoa hemendik aurrera ez da hain egunerokoa izango eta gauzarik esanguratsuenak baino ez ditu bertan idatziko (Ayerbe, argitaratu gabea: 7).

Aipamen berezia merezi du “Txakurrak” ipuineko denboraren teknikak: Zalduaren idazkeraren maisutasunaz gozatzea ahalbidetzen digu *in extrema res* kontatzen hasten zaigun istorio hau, amaierako pasadizotik hain zuzen, eta istorioa atzekoz-aurrera deseraikitzen joaten da, irakurlea gertakariak ulertzera heltzeraino.

Istorioetan ageri zaizkigun emakumezkoen eta gizonezkoen profilari begiratu gero, zenbait ardatzen inguruan egituratzen direla ikusiko dugu, batez ere: amatasuna eta aitatasuna, etxeko bizitza eta lan mundua ezkontzeko arazoak eta bikotekidearekiko harremana.

3.4. Emakumezko protagonisten analisisia

Pertsonaien eta narratzailearen atalean esan bezala, emakumezkoen eta gizonezkoen profilak zenbait ardatzen inguruan egituratzen dira, ikus ditzagun. Emakumezkoen analisisia egiterakoan konturatu gara Zalduak emakumezkoen rolen eraikuntzarako erabiltzen dituen zenbait topiko beste idazle batzuek ere erabili izan dituztela, Lasarteren *Feminist agenda* tesian (2012) argi geratu den moduan; eta beraz, lanaren zati honetan tesi harekiko konparaketak baliatuko dira ulermenerako

beharrezkoa suertatzen denean. Hau litzateke ipuinetan aurkitutakoaren adibide zehatzetatik ondorioztatutakoa:

Amatasuna: Lasartek tesian (2012) esaten digu euskal literaturan emakumezkoek sortutako emakumezko protagonisten azterketa egin ondoren, zenbait narrazioetan amatasunaren alde onak azpimarratzen direla; hau da, diferentziaren feminismoaren zantzuak aurkitu dituela honako nobela hauetan: *Zeruetako Erresuma*, *Jostorratza eta haria*, *31 baioneta*, *Amaren eskuak*... (apud Lasarte, 2012: 132), azterketarako erabilitako ipuinetan kontalaria objektiboa da eta ez du baloraziorik egiten (ez da amatasunaren aldeko, ez kontrako iritzirik ematen), hala ere, ez dirudi amatasunaren ikuspegi idealizaturik ere egiten denik.

Umeen zaintzan sortzen diren arazoez dihardute errelatoek, bikotearekiko zein bikotekide ohiarekiko harremanean sortzen diren arazoez. “Zeta-harrak”-en bi gurasoen arteko desadostasunaren berri ematen zaigu, haurren aisialdiko denborari dagokionean, gurasoak umeen jagotearen alderdi baten inguruan ados ez daudenean sortzen den talkaz, “-Seguru mendi horretan, omenaldian, egon zaretela. – Bueno, eta zer? Nire asteburua da eta titi-puntan jartzen zaidana egin dezaket alabekin. [...]. –Edozein modutan, ongi dakizu ez zaidala gustatzen umeak holako gauzetara eramatea.” (219-220). Aurkezten zaizkigun emakumeek ez dute “ama onaren” profila betetzen, badirudi Zalduak hemen ere gizonetzkoen eta emakumezkoen rola irauli eta gizonetzkoari historikoki egotzitako akatsak amarengan ezartzen dituela (alkoholismoa, etxetik kanpo denbora asko igarotzea, haurren zaintza ahaztea...). Adibide hauek ongi ikusten dira *Azken Garaipena* komikian eta “Williams” ipuinean: amak txirriak erretzen ditu eta aita haurraren kargu utzita ateratzen da lagunekin; ipuinean bertan agertzen zaigu lagunekin festara joaten denean pertsonaien gogoia “-Gaur nesken afaria dun! *Desmadrea! Desmadrea!*”⁵ (W: 65). “-Non dago Haizea? Txirri usaina dago airean [...]; -Bere gelan egongo duk, han utzi diat jolasean –Malenek ez du bista pantailatik apartatu. –Afaría...? –Ez, ez zioat eman oraindik, Jonan.” (W: 55) edo “Hitz eginda geninan Sigrid... Berriro egon al haiz edaten...?” (AG: 33). “Zeta-harrak” ipuinean ere amak manifestazioetara eramaten ditu haurrak berarekin, aitari gustatzen ez zaiola jakinda ere.

Azkenik, Lasartek diosku euskal literaturan emakumezkoek sortutako emakumezko pertsonaiak sortzerakoan “genealogia femeninoa gailentzen dela, hau da,

⁵ Letra etzana neurea da.

emakume idazleak ahalegindu direla emakumeen arteko harremanak plazaratzen” (Lasarte, 2012: 138). Azpimarragarria da Zalduaren kasuan ez dela ama eta seme-alaben arteko harremanean sakontzen, ez zaigu haien harremanaren inguruko daturik ematen, ez sentimendurik aipatzen, ez eurak bakarrik daudeneko pasarterik kontatzen.... Aitaren eta haurren artean, aldiz, baditugu horrelako adibideak.

Etxeko bizitza/lan mundua: egia esan, azterkizun ditugun istorioetako emakumezkoek gaur egungo joerari jarraiki⁶, etxeko lanak egiteaz aparte, etxetik kanpo lan egiten dute gehienek; beraz, esan daiteke, emakumezkoen eta gizonezkoen artean lan egoera nahiko parekatua dagoela kontakizunetan. Ez zaigu aditzera ematen zentzu horretan gizon eta emakumezkoen arteko desorekarik dagoenik. Hala ere, zenbait ipuinetako protagonistengan horren agerikoa ez den egoera zapaltzaile baten zantzuak antzematen dira: espazioa aztertzerakoan aipatu bezala, “Williams”-eko Malenek etxean lan egiten duenez, etxean ematen du eguna, Jonanek osterara, kanpoan egiten du lan, eta “Txakurrak”-en ere, aipatzen zaigu senarra etxetik kanpora irteten dela txakurrak paseatzera, baina emaztearen espazioa soilik etxea dela agertzen zaigu, haurra zaintzen geratzen dela kontatzen baitzaigu.

Bikotearekiko zein bikote ohiarekiko harremana: aurreko adibidean ikusten den moduan, nahiz eta rolen banaketa historikoki markatutakoa bezain sexista ez izan, oraindik zenbait kasutan aztarnaren bat azaleratzen da: badirudi “Zeta-harrak”-en aitaren bikote berriak gizonaren nahiei men egiten dien emakumearen papera eta emakume objektuaren rola jokatzeko dituela. Ipuinari izena ematen dioten animaliekin (zeta-harrak) jokoak eginez, istorioan bertan esaten zaigu zeta-harrak emeak izan ohi direla eta “larrua jo eta errutea beste gauzarik ez” (226) dutela egiten; gizarteak emakumeari ezarritako paperaren metafora dirudi.

Zenbait kasutan, literalagoa ere bada banaketa hori gainera. “Txakurrak” ipuinean, non agerikoa den senarraren askatasuna, zapalketa ere neskamearengan gauzatzen da; etxea garbitzen dien langilea emakumezkoa dela zehazten da, eta ez alferrik “Kaixo, Marta Cecilia, egun on [...]. Ohikoaz gain, ongi legoke liburategiko apalategietako hautsa kenduko bazenu.” (241). Bikote ohiarekiko harremanaren berri ematen zaigunean jelsia da gehien azaleratzen den sentimendua, ipuin batean baino

⁶ EUSTAT-en 2011ko datuen arabera, EAE-n 2.179.815 lagunek lan egiten dute; horietatik 1.063.575 gizonezkoak dira eta 1.116.240 emakumezkoak. Beraz, nahiko parekatuak dago.

gehiagotan agertzen zaigu horren adibiderik, “Zer? Zure *laguntxo*a hortik dabil, ezta? – Pilar du izena. Eta ez, ez dago.” (“Zeta-harrak”: 221) edo “Oso erraza da: kontuz ibili honek txakurra paseatzera ateratzen duenean... A, bai, orain bi dituzue-eta... Ba, hori, kontuz honek txakurak paseatzera ateratzen dituenean. Uste dut ez dela beharrezkoa zergatik azaltzea, *puta alaena*⁷” (“Txakurak”: 244).

Era berean, badira, soilik emakumezkoei lotuta agertzen diren zenbait motibo:

Homosexualitatea: aztertzen ari garen ipuinetako zenbait protagonistek harreman homosexualak nahiz heterosexualak izaten dituzte. Terminologia zehazte aldera, lan honetan harreman homosexualari erreferentzia egiten zaienean Alvarez Uriak bezala ulertuta egin beharko dela, “sexu bereko pertsonetako desira sentitzen duen pertsona” (Castillo & Retolaza, 2013: 293), hain zuzen. Hortaz, ez gara bisexualitateaz mintzatuko, nahiz eta gizon eta emakumeekin izan harreman sexualak ipuinetako pertsonaia berak.

Batetik, adierazgarria da pertsonaia homosexualak sortzea ipuinetan, batzuetan protagonistaren beraren lekua emanik; izan ere, modu honetara, heteronormatibitateari (lan honetan, Alvarez Uriak bezala ulertua; hau da, “jarraitu beharreko eredu eta arau bihurtzea harreman heterosexualak” (Castillo & Retolaza, 2013: 292) aurre egin nahi dio autoreak, homosexualitatea ikusgarri eginez; hau ere genero rol normatiboak aldatzeko saiakera izango litzateke.

Bestetik, adierazgarria da, bilduma osoan soilik emakumezko homosexualak agertzea (egia esan, Zalduaren ipuingintza osora zabaldu daitekeen orokorpena da hau, gay baino lesbiana gehiago sortzen baititu). Guk aukeratutako bi kontakizunetan badira lesbianen kasuak; bat “Zeta-harrak”-en, zeharka bada ere, erakusten zaigu amak orain beste emakumezko batekin duen afera, “Eta Bilboko manifestaziora? Ez duzu, ba, Asun zure *lagunarekin*, horra eramateko asmoa izango?” (228). “Bila”-n aldiz esplizituki kontatzen zaigu sexu-harremanaren pasadizoa “Ilea laztandu zidan, eta musu eman zidan ondoren; espero bezala erantzun nion nik [...]. Laster jaitsi ginen lurrera, edo erori ginen.” (267). Honen guztiaren bidez, homosexualitatea ikusgarri egiten bada ere, deigarria iruditu zaigu emakumezkoei lotuta soilik agertzea, baliteke emakumezkoen sexu askapena, emakumezko diren heinean, oraindik zailago gertatzen delako izatea; eta

⁷ Adibideetako letra etzanak neureak dira.

horri gure idazleak lekua eman nahi izatea. Bestalde, eta nahiz eta emakumezkoen homosexualitatea agerrarazi, harreman mota hau bigarren planoan geratzen dela dirudi, ez baitugu aurkitzen protagonisten artean harreman egonkor lesbikorik, erran nahi baita, “Zeta-harrak” kontakizunean zeharka soilik aipatzen den harremana dugula, kontakizun nagusiaren atze-ohial gisa agertzen dena, eta “Bila”-n agertzen zaigun harremana esporadikoa dela.

Azkenik, “Zeta-harrak” kontakizunak eskainiriko datuei helduz, emakumezkoen arteko harreman homosexualen alderdi ez hain nabari baina interesgarri batzuk azaltzen zaizkigu. Sareinak taldeak ongi azaltzen duen moduan

Erresistentzia gune horien bila jo ohi dute lesbiana askok eta askok. Horietariko zenbait lekaimetxea, harema, eskola, baserria, ostatua edo aterpea dira. Esaterako, XX.mendeko literatura lesbiarra urruneko aterpe zahar batean, itsasoaren erdian dagoen itsasontzi zabal eta handi batean, irla batean edota Parisen kokatuko da (Sareinak, 2010: 98).

Gure kasuan ere, hiriko bizitzatik urrun, baserri batean, bizi diren emakumezkoen inguruko datuak tartekatzen zaizkigu. Gainera, zenbait ikerlarik borroka homosexuala eta gainontzeko iraultzak elkartu izan dituzte, adibidez,

Hego Euskal Herrian lesbianismoa eta feminismoa elkarren ondoan landu ziren 1979tik 1995era. 70ko hamarkadan mugimendu feministaren barnean sexualitate askeari eta lesbianismoari buruzko gogoeta plazaratu zen (Villar *apud* Sareinak, 2010: 89).

Gure kontaketan, amak, lesbiana izatearekin batera, euskal nazio eraikuntzan parte hartzen duela zehazten zaigu “-Umeak nora eraman behar dituzu [...]? Bilboko manifestaziora [...]? Jakinaren gainean zaude: ez dut Maddi egunkarian berriz ikusi nahi ikurrin bat eskuan duela.” (228) eta arestian esan dudana bezala, protagonista gehienak maila ekonomiko ertainekoak dira.

Genero indarkeria: analisia hobeto ulertze aldera, genero indarkeriatzat onartzen dena mugatu beharko litzateke. Nazio Batuek horrela zehaztu zuten: “indarkeria edo xantaia emozionala erabiliz edo erabiltzeko mehatxuaz egiten den edozein motatako biolentzia; bortxaketa, emakumeenganako indarkeria, sexu-jazarpena, pederastia edo intzestua barne” (itzulpena neurea da, *apud* Lasarte, 2012:).

Honen adibiderik badugu “Gerra Zibilak”-en, eta bilduman zehar ipuin gehiagotan ere agertuko da. Bortizkeria fisikoaren adierazpena protagonistarengan

gauzatzen da; behin eta berriz bortxatzen du bere borroka kide batek eta laguntza eskatzen duenean ez du erantzunik jasotzen. Emakumeek sortutako emakume protagonisten azterketan indarkeria fisikoaren kasuak aztertzen direnean, honakoa esaten zaigu: “gertatutako gauzak kontatzen zaizkigu [...] eta indarkeria sinbolikoa ikusten da” (apud Lasarte, 2012: 84). Baieztapen hau ere gurera ekar dezakegu, kontakizunean zehar etengabeak dira honen adibideak “haragia nik hezurgabetu eta gatzatzeko agindu du sarjentuak [...]. Berehala jaten ez dugun ehiza guztia nik gatzatu ohi baitut” (87) edo “Uniformeak josten” (95). Indarkeria sinbolikoaren zertzeladak kontaketaekin tartekatzen baditu ere, indarkeria fisikoa gauzatzen den unea tentuz kontatuko digu geroago.

Ikus daitekeenez, kontaketa indarkeria fisikoarekin batera tartekatzen da indarkeria sinbolikoaren gauzapena, baina, Nazio Batuen adierazpenean indarkeria sinbolikoa ez da oso argi adierazten eta agian horregatik, ondorengo diote Bosch eta Ferrerrek horren inguruan:

Biolentzia mota honek gizarte talde bat menperatzeko boteretsuek garatutako estrategia kulturalak natural bihurtzea du ezaugarri nagusia. Hau da, gizarte desberdintasun ariketa bat natural bihurtzen duen biolentzia da eta, hain zuzen horregatik, askotan ez zaio kontrarik egiten (itzulpena neurea da, apud Lasarte, 2012: 78).

Aurreko ataletan azaldu den bezala, bortizkeria mota honek hartzen du leku nabarmena Zalduaren lanean (sexismoa aipatu da, bikoteen arteko harremanak aztertzerakoan batez ere). Lasartek dioen bezala, euskal literaturan “tratu txarrak edo abusuak gertatzen direnean, [espazioaren] fokua erabat ixten da, indarkeria ikusezin edo isiltasun bihurtu nahian” (Lasarte, 2012: 88); espazioaren atala lantzerakoan ikusi dugunez, espazio itxiak (gure kasuan etxeak) gailentzen dira, eta bertan garatzen dira aipatu indarkeria sinbolikoaren ezaugarriak.

Gainera, indarkeria honen erakusgarriak ez dira soilik protagonisten gorabeherak; honen zertzeladarik ere ageri zaigu hari nagusitik urruntzen diren pertsonaien artean ere. Esan dugun bezala, Zalduak atze-ohial gisa helarazten dizkigu mezu nagusienak, istorio nagusian tartekatutako lorratzen bidez. Honen adibidea dugu adibidez, “Gerra Zibilak” ipuinean; izan ere, istorioaren protagonistak berak genero indarkeria jasan behar izaten duela ikusten badugu ere; kontakizunaren momentu batean, protagonista ez den beste pertsonaia batek ere honen adibidea erakusten digu.

Gudarosteko buruzagiak beste gudari batekin hitz egin ondoren, zera kontatzen diola esaten zaigu: “Pasa den mendearen amaieran, bailara honetako baserrietako neska batzuk konbentzitu, edo bahitu –hori ez dit argi azaldu-, eta haiekin bizitzera eraman zituzten mendira” (100). Kontatzen zaigun ekintzaren aurrean pertsonaia guztiek (buruzagiak, beste gudariak, gudarosteko gainontzeko gudariak...) erakusten duten pasibotasuna indarkeria sinbolikoaren adibide garbia litzateke. Nahiz eta ekintza argi ez egon, indarkeria egon ahal izan dela susma daitekeen kontakizunean, pertsonaiek ez dute gertakariak argitzeko zirkinik ere egiten eta indarkeria bera egon ahal izatea onartzea dakar horrek.

Pixka bat sakonduz, ipuin honetan genero indarkeriaren atzean korapilo sakonago bat ezkututzen dela ikusiko dugu; izan ere, esan badugu neskatoak laguntza eskatzean erantzunik jasotzen ez duela, zergatia bera ere azaltzen digu egileak, “inportanteena borrokan jarraitzea da” (97). Baieztapen honek azaltzen digu ipuinaren gibelego ideia, Mikel Ayerbek dioen moduan:

Gatazkaren ideien kuestionamendu bat iradokitzen du [...]. Historia liburuetan gerra zibil gisa deskribatzen ez diren gatazken berri ere ematen baitu [...]. Gatazka nagusiek bestelako gatazkak txikiagotu eta fagozitu egiten dituztela, sarritan gatazka indibidualak auzitan jarri eta ezabatzeraino (Ayerbe, argitaratu gabea: 10).

Aztertzen ari garen ipuina gerrako genero rolen markapenaren sinbolotzat har genezake, izan ere, Yuval-Davis eta Anthias-ek dioten moduan “emakumezkoen eginkizun nazionala ugalketan oinarritzen da, ugalketa biologiko eta ideologikoa barne hartzen dituelarik” (itzulpena neurea da, apud Mayer, 2000: 10); “Gerra Zibilak”-eko protagonistarengan hau bera ikusten dugu, sarjentuak borrokan jarraitzeko esaten dionean, kontalariak berak adierazten digu badakiela “hori posible egin dezakeen bakarra” bera dela (102). Gainera, Allen-ek dioenari jarraiki, “emakumezkoak arazo bilakatzen dira borroka garaian, patriarkatuari kontra eginez, gerra garaiko hierarkia eta patriarkatu beharrezkoa mehatxatu dezaketelako” (itzulpena neurea da, Allen, 2000: 309) eta ipuineko protagonista arazo bilaka daiteke buruzagiarentzat bortxatzen duen kidearekiko matxinatzen lagunduz gero.

3.5. Gizonezko protagonisten analisia

Gizonezkoen analisia emakumezkoena baina soilagoa egitea hautatu dugu, ikusi baitugu gizonezkoen profilarik begiratu, emakumeekiko zenbait ezaugarri

kontrajartzen direla eta beraz, hemengoa emakumeekiko erkaketa moduko bat izatea espero da:

Narratzaileaz hitz egiterakoan aipatu den bezala, gizonetzko pertsonaien marka da istorioak gehienbat beraiengan fokalizatuak egotea, aurretik azaldu den intentzioaren eraginez segur aski. Hau erakusteko, Zalduak zenbait estrategia narratologiko erabiltzen ditu: oraindik orain aipatu dena, istorioan agertzen den lehen pertsonaia gizonetzkoa izatea, litzateke erabiliena. Bestalde, ipuinen izenburuek ere eginkizun erabakigarria jokatzen dute; gaude ez dela kasualitatea “Williams” ipuinean, zeinetan esan dugun gizonetzkoarenganako fokalizazioa nabarmena dela, izenburuak, batetik, gizonetzko izena eta bestetik, gizonetzkoen bizarra mozteko tresnen marka ezaguna ordezkatzeari, maskulinitatearen adierazgarri.

Sakontzen da aita/ume harremanean: aurrerago emakumez hitz egin denean adierazi da ez dela sakontasunik antzematen ama-alaben harremanetan, baina, “Williams” eta “Zeta-harrak” ipuinetan adibidez, gizonetzkoek alabekin duten harremanak ipuinetako orrialde dezente hartzen ditu: “Atea itxi du, eta arraroa iruditu zaio Haizea ez agertzea aitaxo, aitaxo! oihukatuz” (“Williams”: 54) edo alabak min hartzean aitarekin dagoela eta aitaren tresnen eraginez izatea ere adierazgarria suertatzen da. “Zeta-harrak”-en, umeek aitarekin egiten duten parkeko ibilaldiak 4 orrialde hartzen ditu; hau da, kontaketaaren %25; amarekin igarotako denbora, ordea, zeharka baino ez zaigu kontaktzen.

Homofobia: emakumeen iruditegiaren bidez lesbianismoa ordezkatzeari bada, gizonetzkoen ahotan jarriko dira liburuko agerpen homofoboak. Horrela, “Zeta-harrak”-en aitaren bizilagun bati gizonetzkoaren berri galdetzean, hau esango digu “Haren emazte sorginak ez zuen minutu bat ere galduko umeak kentzeko. Horietako bat da... badakizu... [...] Oraingo emaztegaiak, horrek bai ematen zuela emakume ona” (232). Emazte ohiarekiko elkarrizketetan ere homofobia ageri zaigu, zeharkako aipamen ironikoekin adierazten baita kontakizunean gai tabua dela, “Ez duzu, ba, Asun zure *lagunarekin*, horra eramateko asmoa izango?” (228).

Parodiatuak izatea gizonetzkoen ezaugarri eskusiboa da Zalduaren kontagintzan: “Gerra Zibilak”-en batailoiko gainontzeko partaideak, guztiak gizonak, nabarmen geratzen dira karlisten taldekoei aurka egin ondoren; protagonista Sabiñek aurretik esan bezala, haietako bat emakumezkoa izanik, nahiz eta taldekideek hasieran

ez sinetsi. Hasieran, Sabiñez trufatzen dira, “barre egiten didate besteek. ‘Gona jantzita al zebilen [...]?’ *Rougearen* distira sumatu zenion ezpainetan, ala?’” (94), gero, protagonistak berak kontatzen digu “Gorpuen artean ibili naiz une batez [...]. Buelta eman diot lurrean ahuspez etzanda geratu den bati. Emakumea da, ez oso gaztea. Irribarre egin dut” (99), borobiltzeko, ez du gainontzekoen errekonozimendurik jasotzen, nahiz eta denek ikusi arrazoi duela. “Williams” errelatoan ere badugu parodizazioaren zantzurik; nahiz eta, Jonan aita maskulinitatearen parametroen barnean aurkezten zaigun “Konketa ilez beteta dago. Bereak direla konturatu da, goizean bizarra egin duenekoak” (55), aldi berean, bai narratzaile estradiegetikoaren eskutik bai emazte Malenen ahotik, maskulinitatearen ideia mendebaldarraren kontra joango litzeteeen ahuleziaren bidezko parodiatzearen zantzuak erakusten zaizkigu: “Jonan beti zorabiatzen da mendatea igotzean, etxerako itzuleran” (60), baita ere “Jonanen eraginez [...], desodorantea beheko apalean ipintzeagatik. Orain ikasi din altuenean uzten. Barregarria dun ikustea: oin puntetan jarrita ere nekez heltzen dun bertaraino” (59); edo gidatzeari muzin egitearen bidez: “Baina Jonanek, baimena hemezortzi urterekin atera bazuen ere, ez du ordur geroztik bolanterik ukitu. –Beldurra emango lidake orain kotxe⁸ bat hartzeak” (62).

Bilduma honetako “Lerro horia, lerro gorria” ipuinarekin ere elkartu daiteke, bertan, emazte ohiak uztea gainditu ez duen gizona dugu protagonista, edozein aitzakia erabiliz behin eta berriz bisitan joaten zaiona. Aurretik aipaturiko bere ibilbideko beste lan batekin ere elkartu dezakegu aspektu hau, adibidez, *Euskaldun guztion aberria* liburuarekin. Metodologiaren atalean aipatu den bezala, nahiz eta protagonista gizarte arazoez ihesi doala esaten zaigun, istorioak aurrera egin ahala, irakurlea konturatuko da, egiaz protagonista bere barne arazoez ihesi doala. Pertsonaiaren gogoetak bere patetikotasunean azaleratuko dira, eta kezka latzenak emakumeekiko harremanen inguruan lotzen direla ikusiko dugu: bere bikote ohi guztiak lesbiana bihurtzea, momentuko bikotearekin lotura egonkorrik osatu nahi ez duela adierazteko adore falta...

⁸ Tradizionalki egiten den gizentasunaren paradigmaren barnean sartu ohi da automobilekiko afizioa.

4. Ondorioak

Lan honen helburua Iban Zalduaren ipuingintzan genero rol normatiboen kontrako iraultza proposatzen dela frogatzea izan da eta iraultza hori, literatura osoan zehar egiten saiatzen dela.

Lehenik, ikusi dugu Zalduak ipuingintzaren aldeko apustua egiten duela eta gainera, bere azken laneko ipuin hautatu batzuekin, saiatu gara frogatzen ipuingintza horretan zehar heteronormatibitatearen kontrako kritika egiten duela. Azkenik, ipuin hautatu hauen azterketarekin, aurkeztu dugu heteronormatibitatearen kontrako kritika hori zein modutan azaltzen zaigun idazle donostiarraren literaturan.

Uste dugu, ondorio hauekin argi erantzun daitezkeela hasieran planteatutako galderak: 1) Zalduaren ipuingintzan heteronormatibitatearekin hausten da? 2) Era nabarmenean hausten da gaur egungo egoera normatiboarekin? 3) Zein estrategia narratiboren bidez garatzen da haustura hori? 4) Emakumeek eta gizonezkoek jasotzen duten hausturaren tratamendua berdina izan ohi da?

Argi geratu da genero rol normatiboen kritika zorrotza egiten dela kontakizunetan eta ondorioztatu dugu, Zalduak generoa itzultzeko irakurlearen inguruko gaur egungo gertuko eta eguneroko bizitza azaltzen digula gordin-gordinean. Ez zaiola gizarteari aurreratu nahi, ez digula bere mundu ikuskera idilikoa ezagutarazi nahi.

Horregatik, emakume eta gizonezkoek gaur egungo egoeran dituzten arazo eta akatsen arteko banaketa difusoa da, ez dira banatze nabarmenak. Agian, honekin, galdera sakonagoa egin nahi digu: gaur egun ez dagoela hain argi (gizon eta emakume) on eta txar arteko diferentzia.

Azkenik, ez genuke aipatu gabe utzi nahi, lanketan zehar erabilitako materiala aztertzerakoan konturatu garela euskal literaturan emakumezkoek sortutako emakumezko protagonisten inguruko analisirik egin bada ere, gizonezkoek sortutako gizonezko eta emakumezko pertsonaien inguruko azterketak urriagoak izan direla. Honako hau, azterketa horretara gerturapen bat izatea espero da, baina, etorkizuneko lanetan garatzeko gai egokia da.

5. Bibliografia

- ALLEN, H. (2000), "Gender, sexuality and the military model of U.S national community", in *Gender ironies of nationalism. Sexing the nation*, Taylor & Francis e-Library, 309-329 orr.
- APALATEGI, U. (2013), "Euskal subjektuaren bilakaera erromaneskoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak" [artikulu linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9, 56-77, [Kontsulta data: 14/12/30], <http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf>
- AYERBE, M. (argitaratu gabea), "Iban Zalduren Ipuingintza. Guda eta gatazka"
- ALVAREZ URIA, A. (2013) "Glosategia", in Castillo, I. & Retolaza, I. *Genero ariketak*, Donostia: Edo, 279-308 orr.
- GRAY, M. (1992), *A Dictionary of Literary Terms*, Harlow, England: York Press-York Handboks
- KORTAZAR, J. & BILLELABEITIA, M. (2011) "Iban Zaldua: Traizioak" in Kortazar & Rabelli *Egungo euskal ipuingintzaren historia*, Bilbo: UPV-EHU, 267-277 orr.
- LASARTE, G. (2012), *Feminist agenda*, Bilbo: UPV-EHU
- LÓPEZ GASENI, M. (2008), "Zer esan nahi dut "metaliteratura" diodanean?", *Mozorroa ispiluan. Ibilbide bat metafikzioaren historian zehar*. Donostia: Erein, 13-18 orr.
- MAYER, T. (2002), "Gender ironies of nationalism: setting the stage", in Mayer, T. *Gender ironies of nationalism. Sexing the nation*, Taylor & Francis e-Library, 1-25 orr.
- RABELLI, A. (2011), "Sarrera. Gaurko euskal ipuingintzaren historia. 1983-2003", & in Kortazar & Rabelli *Egungo euskal ipuingintzaren historia*, Bilbo: UPV-EHU, 13-107 orr.
- RETOLAZA, I. (2007), "Leturiaren egunkari ezkutua: gios eta emakume irudiak" in *Euskera*, 52. (2007, 2), 671-689. orr.

RIBAS, J. & ZALDUA, I. (2011), *Azken garaipena*, Donostia: Euskal Herriko Ikastolak

SAREINAK (2010), “Milia balitz lamia... lesbianismoa eta euskal literatura” in Egaña, I. (koord.), *Desira desordenatuak: Queer irakurketak (euskal) literaturan*, Donostia: Utriusque Vasconiae. 87-103. orr.

TOLEDO, A. (2000), “El personaje femenino en la novela costumbrista vasca” in Zavala, Iris M., *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, Vol. IV, Bartzelona: Anthropos. 332-446. orr.

ZALDUA, I. (2005), *Etorkizuna*, Irun: Alberdania, [2. argitaraldia]

-(2008), *Euskaldun guztion aberria*, Irun: Alberdania

-(2014), *Inon ez, inoiz ez*, Donostia: Elkar